| NAN anonimizatua | 1. emateko oharrak | 1. emateko notak | 2. emateko oharrak | 2. emateko notak |
|---|---|---|---|---|
| ***9962**<br>***6646**<br>***4935**<br>***9238** | ·Bereiztu industria eta etxebizitza (Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partzialaren berrikuspeneko planoak begiratu ditzakezue).<br>·Helburuen plano interesgarria. | Ongi/Oso ongi | ·Azpiegitura handiak, gutxienez egungo egoeran, trantsizio-eremuak kokatuko nituzke.<br>·Gasteizko eraztun berdea gutxienez 2050eko zonifikazioan ager liteke, nukleoan edo gutxienez tanpoi-zonan. | Ongi/Oso ongi |
| ***0518**<br>***3965**<br>***3168** | ·Badirudi Zadorraren arroa hartu dela gehien bat, baina hego-mendebaldean Baiaren arroan sartzen da eremua: ez da oso ondo ulertzen.<br>·Planoetan espazialki kokatu esaten/proposatzen duzuena. | Nahiko/Ongi | ·Erreserbaren muga berdina izan behar da plano guztietan: argitu ea Baia ibaia ote den, edo Zadorraren arroa.<br>·Legendak ondo ikusi behar dira.<br>·Egungo egoeran trantsizio-eremua handiagoa izan liteke, eta, etorkizunekoan, nukleoak handiagoak. | Ongi |
| ***2229**<br>***4191**<br>***8104**<br>***3320** | ·Behin muga zehaztuta, handitu pittin bat eskala, zoom-a erreserbaren tamainera egokituz (alegia, hemendik aurrera ez dugu jarraitu behar Beasain ikusten).<br>·Ondo, eraztun berdea inguruarekin lotzeko asmoa. | Ongi | ·2050erako zonifikazioa ere proposatu behar zen.<br>·Egungo zonifikazioan trantsizio-eremuan sartu lurralde mailako azpiegitura handiak (AP-1 eta bestelako errepide nagusiak). | Nahiko/Ongi |
| ***8591**<br>***4724**<br>***8648** | ·Ez da ulertzen ekialdeko muga egiteko arrazoia (aipatzen dituzuen arrazoi topografikoak edo hidrografikoak, alde horretan ez dira ulertzen). Lautada zatitu duzue. Dulantzi barruan dago ala ez? Akaso plantea zenezakete 2050ean erreserba zabaltzea, Lautada osorik hartzeko.<br>·Bigarren eraztun berdearen ideia, interesgarria. | Nahiko/Ongi | ·Muga, hobeto.<br>·Zonifikazioko 3 koloreak hobeto ikusiko lirateke, gardentasun gehiago emanez ortoargazkiari.<br>·Ez da ondo ikusten gerriko berde berriaren eta zonifikazioaren arteko harremana. | Ongi |
| ***2752**<br>***0188**<br>***0066** | ·Errepide nagusiak gutxi ikusten dira. Trenbideak falta dira.<br>·Interesgarria, aurreratu izana erreserbarekin bateragarriak eta bateraezinak diren erabilerak. Orain, hori gehiago garatu behar. | Ongi/Oso ongi | ·Esango nuke egungo egoeraren zonifikazioan trantsizio eremua handiagoa dela eta nukleo eta tanpoi-zonak, txikiagoak.<br>·Argitu zertan bereizten diren gertu dauden herri antzerakoak, zona ezberdinetan baldin badaude. | Ongi/Oso ongi |
| ***2855**<br>***3716**<br>***0078** | ·Industrialde nagusiak ere bereiztu.<br>·Helburuak ere grafikoki adieraz litezke. | Ongi/Oso ongi | ·Gasteizko eraztun berdea gutxienez 2050eko zonifikazioan ager liteke, nukleoan edo gutxienez tanpoi-zonan.<br>·Saiatu nukleoei eta tanpoi zonei jarraikortasun gehiago ematen, etorkizun egoeran. | Ongi/Oso ongi |
| ***2703**<br>***2388**<br>***5487**<br>***2222** | ·Elementuak falta dira: industrialde batzuk, eraztun berdea, herrigune nagusiak Gasteizez gain, trenbideak…<br>·Helburuena ez da oso ondo ulertzen, eta ahoz ere ez duzue gehiegi azaldu (zergatik nekazaritza jasangarria hor eta ez beste leku batean?, adibidez). | Nahiko | ·Zonifikaziorako koloreak gradiente logiko(ago) baten arabera jarriko nituzke.<br>·Egungo egoerako trantsitzio-eremua handiagoa izan liteke (bereziki errepide nagusiengatik). | Ongi |
| ***5092**<br>***9567**<br>***3763** | ·Ondo dago GR-25 muga izatea (ez nahastu Donejakue bidearekin); baina orduan bide hori gehiago aztertu behar da.<br>·Araka ekipamendua da, baina ez "ekonomikoa".<br>·Elementuak falta dira: industrialdeak, eraztun berdea, herrigune nagusiak… | Nahiko | ·Azterlana, hobeto (Gasteizko eraztun berdea hobeto marraztu liteke).<br>·Ondo dago Salburuako nukleoaren handipena. Dena den, arazoak dauzka AHTarekin: begiratu eta konpondu.<br>·Industriak lekuz aldatzen badituzue, izan dadila zerbait lortzeko bi lekuetan (jatorrizkoan eta berrian).<br>·Gasteizko eraztun berdea zonifikazioan bereiztuko nuke. | Nahiko/Ongi |
| ***7076**<br>***5610**<br>***2751** | ·Izenaz: ez da soilik "Gasteizko" erreserba (Gasteizaldekoa, edo Lautadakoa…).<br>·Ibai nagusiak eta komunikazio-elementuak (errepideak, trenbidea…) bereiztu beharko lirateke. | Oso ongi | ·Zonifikazioa, oso ondo eta argia. | Oso ongi/Bikain |
| ***5371**<br>***3573**<br>***4365** | ·Muga, zergatik Pobeseraino?<br>·Planoetan espazialki kokatu esaten/aztertzen/proposatzen duzuena.<br>·Antolatu informazioa (plano batean zenbakiak daude baino gero ez dago legendarik). | Nahiko | ·3D batzuk (eskala handikoak) ez dira oso ondo ikusten.<br>·Zonifikazioaren bilakaera-eskema interesgarriak. | Ongi/Oso ongi |
| ***2643**<br>***6734**<br>***7535**<br>***4126** | ·Ulertzen da nondik datorren, baina muga pittin bat arraroa geratzen da pare bat puntutan.<br>·Interesgarria, berrikuntzaren arkua erakusten duen planoa. Gezi, ikur eta bestelako adierazpideak ere egon litezke, egitasmoak aurreratuz. | Ongi/Oso ongi | ·Saihestu nukleo txiki eta isolatuak, gutxienez 2050era begira (tamaina nahikoa izan dezatela, eta, ahal bada, lotuta egon daitezela).<br>·Azpiegitura grisak ez dituzue marraztu, baina hor daude (errepideak, trenbidea…): zer gertatzen da azpiegitura berdeekin gurutzatzen direnean? | Ongi/Oso ongi |
| ***5223**<br>***3531**<br>***1591**<br>***6849** | ·Ondo marraztuta, eskuz egon arren.<br>·Eskala handiko lokailuena eskema batean gehiago adieraz liteke.<br>·Interesgarria, etorkizunean zabaltzeko aukera.<br>·Elementuak falta dira: industrialdeak, trenbideak… | Ongi | ·Erreka eta ibai guzti-guztiak akaso ezin dira, egungo egoeran, tanpoi zonan txertatu. Izanez gero, akaso etorkizuneko egoeran.<br>·Interesgarria, etorkizunean erreserba handitzeko aukerarena (arrazoitu pixkat gehiago muga posiblea). | Ongi/Oso ongi |
| ***6630**<br>***4797**<br>***4223** | ·Planoetako kolore eta ikurrak legendan azaldu<br>·Kontuz nahi gabe "asmatu" duzuen urtegiarekin | Oso ongi | ·Egungo egoeran trantsizio-zona handiagoa izan daiteke (errepideengatik, bereziki). | Oso ongi |
| ***3287**<br>***5100**<br>***1021** | ·Sintetizatu, mesedez (orrialdeak erdira murriztu litezke). Eta planoei legenda argigarriak erantsi.<br>·Lurralde mailako hainbat elementu falta dira (industrialde nagusiak, errepideak, trenbidea…).<br>·Logistikaz ari bazarete, ezin duzue Jundiz ahaztu (eta ez da deitzen "Hegoekialde").<br>·Begiratu ondo zonifikazioaz Unescok dioena (hirigune osoak ezin dira nukleoan egon). | Nahiko | ·Zonifikazioan, ondo bereiztu daitezela koloreak. Legenda argi bat jarri. Eta kolore gehiago badaude, azaldu zer diren.<br>·Erreserba zabaltzen baduzue, adierazi argi nondik nora.<br>·Ez da oso argi geratzen zertarako zabaltzen duzuen erreserba 2050ean. Ez da oso argi geratzen zer irabazten den (edo, aldi berean, zergatik ez den zabaltzen, adibidez, Gorbeian).<br>·Ondo legoke nukleoak korridore berdeen bidez lotzea. | Nahiko |
| ***7133**<br>***9256**<br>***0218** | ·Natura-parkeetan muga ondo azaldu duzue; baina gainerakoa azaltzea falta da.<br>·Lurralde mailako hainbat elementu falta dira (parke teknologikoa, trenbidea…). | Nahiko | ·Letra txikiegi dago eta zaila da irakurtzeko.<br>·Lurralde mailako elementu *gogor* batzuk ezin dira planteatu tanpoi zonan (aireportua, Goiain industrialdea, Langraitz…). | Nahiko/Ongi |
| ***4698**<br>***5033**<br>***7917** | ·Aipatzen dituzuen elementuak (errepideak, trenbidea…) planoetan erakutsi.<br>·Ez da ondo ulertzen zergatik sartu den Aramaio, baina ez Gaubea. | Gutxiegi/Nahiko | ·Ez kopiatu Geueuskadiko informazioa zuzenean, ondo ulertu eta liseritu/moldatu gabe.<br>·Zonifikazio interesgarria. | Ongi/Oso ongi |
| ***2840**<br>***3335**<br>***8985**<br>***4447** | ·Lurralde-elementuen azterlana eskasa da. Ez da nahikoa Geoeuskadiko plano bat argitaratzea: zuen irakurketa eskatzen da, bereiztuz zer den garrantzitsua. Lurralde-elementu bakarra adierazi duzue, trenbidea, baina zatituta.<br>·Helburuena ere, ez dago landuta (alor gehiago landu daitezke, planoan espazialki adieraziz). | Gutxiegi | ·Azterlana, hobeto.<br>·Zonifikazioan, barrukoa kolorez (edo zerbaitetaz) bete, bestela ez da ondo ikusten.<br>·Bereiztu egungo eta 2050erako zonifikazioa, bi plano ezberdinetan. Horrekin lotuta, kontuan izan nukleoa ere aldatu daitekeela denboran (handitu, esaterako, beste nukleoekin elkartuz...). | Nahiko |
| ***2761** | - | Aurkeztu gabe | - | Aurkeztu gabe |

| Talde guztientzako oharrak | Talde guztientzako oharrak |
|---|---|
| ·Txertatu testua, laburtuta, planoetan. Saiatu lana modu ahalik eta grafikoenean azaltzen.<br>·Adierazi plano bakoitzaren izenburua (azaltzen duena planoaren eduki nagusia) eta legenda (azaltzen dituena marra, ikur eta sinbolo guztiak).<br>·Din-A4 formatua txikiegia da planoak erakusteko.<br>·Adierazi Gasteizko eraztun berdea.<br>·AHTaren zati bat dagoeneko eraikita dago, eta beste bat eraikitzen ari dira. Adierazi.<br>·Mugatu dituzuen eremu gehienetan 2 parke eoliko daude (Badaiakoa eta Elgeakoa). Adierazi.<br>·Eremuren bat mugatzerakoan (erreserba bera, esaterako) ibaiak eta errekak "moztu" daitezke, baina ondo justifikatuta egon behar da.<br>·Zerbait ez baduzue ezagutzen zer den (Geoeuskadin ikusitako akronimo bat, esaterako), ez jarri.<br>·Xehetasun maila Araba Erdialdeko LPParen hasierako onarpen-dokumentukoaren modukoa izan daiteke: https://tinyurl.com/wvebss4a | ·Egungo zonifikazioan, errepide nagusiak eta trenbideak trantsizio-zonan sartuko nituzke. 2050eko zonifikazioan, zuek ikusi (planteatzen duzuenaren arabera). |